Bioetilenoa* landaretatik lortzen den etanola (bioetanola) temperatura eta presio altutan deshidratatuz ekoizten da. Prozesu honetan aluminio oxidoa (Al₂O₃) erabiltzen da katalizatzaile gisa. Bioetanol gehiena arto, azukre erremolatxa, azukre-kanabera eta sorgo gozoaren azukreen hartidura bidez ekoizten da. Modu honetan CO₂ isuriak 70-80% murrizten dira.




b) Hidrokarburoak ez direnak

i. sufrea duten konposatuak



ii. nitrogenoa duten konposatuak



iii. oxigenoa duten konposatuak




iv. metalak dituzten konposatuak: V, Ni, Co eta Fe
(VO²⁺) V₂O₅

Banadilo katioia

Banadio pentoxidoa

PETROLIOAREN FRAKZIOAK



4.1.4 PETROLEOAREN ETEKINA HOBETZEKO METODOAK


• **Oktano indizea (O.I):** Gasolina baten leherketaren aurreko erresistentzia adierazten du.

- Gasolina bat lehertu baino lehen zenbateraino konprimi daitekeen esaten digu.
- Gasolinak motorrak zenbat "kolpatzen" dituen adierazteko eskala da.




a. Gehigarri antidetonatzaileen erabilera


Konposatua	Oktano indizea	Konposatua	Oktano indizea
Bentzeno	106	metanol	116
Tolueno	118	Etanol	112
<i>p</i> -Xileno	116	MTBE	116



b. Erreformatze katalitikoa



c. **Petrolioaren crackinga (pirolisia):** Gasolina kantitate handiagoa lortzeko



2 cracking mota daude:

- **Cracking termikoa:** Temperatura (450-750 °C) eta presio (70 atm) altuetan egiten da, erreakzio erradikalarioak ematen dira.
- **Cracking katalitikoa:** Katalizatzaileak erabiltzen dira, adibidez zeolitak, 500°C tenperaturak eta presio baxuagoak, erreakzio ionikoak ematen dira.

Pirolisia berotze bidez materia organikoaren deskonposizio/transformazioa da. Temperatura altuetan eta airerik (oxigenorik) gabe egiten da.


- Hidrokarburo kate luzeak kate motz eta interesgarriagoak emanez apurtzen dira.
- Gaur egun, pirolisia hiriko eta industriako hondakin birziklaezinak edo birziklatzen zailak direnak tratatzeko erabiltzen da, honela erregaiak eta gasa lortuz.
- Pirolisiaren adibide ezagun bat, egurretik, egur ikatza lortzearena da.

4.2 PETROLIOA ETA BERE DERIBATUEN ERREAKZIO KIMIKOAK




HIDROKARBURUEN ERREAKZIO BATZUK

4.2.1. ALKANO ETA ZIKLOALKANOAK


Oxidazioa: konbustio edo erreketeta




Halogenazioa:



Erreakzio-bidea: erreaktiboek produktuak emateko bidean gertatzen den loturen apurketa eta sortze-prozesuaren pauso pausoko azalpen zehatza da. Halogenazioaren kasuan




• **Halogenazioaren emaitzak:**



Erradikalen eraketa-abiadura:


Kloro Tertiario > sekundario > primario
5.0 3.8 1.0

Bromo Tertiario > sekundario > primario
1600 82 1.0




4.2.2 ALKENO ETA ALKINOAK


Adizio erreakzioa:



Alkenoa eta erreaktiboak asimetrikoak badira:




Adibideak:



Metodo espektroskopikoak:

- Espektroskopia ultramore eta ikuskorrek (UV-VIS) erradiazio elektromagnetikoa erabiltzen du.
 - UV---200-400 nm
 - VIS---400-800 nm
- Erradiazioak elektroiak kitzikatzen ditu et OM lotzailetatik OM ez lotzailera libreetara pasatzen dira
- Lambert-Beer legean oinarritzen da: $A = \log(I_0 / I) = \epsilon c l$



A: absorbantzia

I_0 : Argiaren intentsitatea sartzean

I: Argiaren intentsitatea lagina zeharkatzean

ϵ : absorbitate molarra

c: laginaren kontzentrazioa (mol/L)

l: kubetaren zabalera (cm)



Lotura bikoitz konjokatu kop $\uparrow \rightarrow \lambda \uparrow$

(Batez ere sistema konjokatueta du interesa)

4.2.3 KONPOSATU AROMATIKOAK

- Konposatu aromatikoa: bere erreaktibitatea bentzenoarena bezalakoa duen konposatua. Konposatu baten π elektroiak eraztun guztian zehar deslokalizatuta daudenean eta deslokalizazio honek konposatua egonkorrago egiten duenean aromatikoa da.
- Hückelen erregela: eraztun konjugatu monozikliko lauak aromatikoa dira ($4n+2$) ($n=0, 1, 2, \dots$) π elektroi dituztenean.


- **Erreakzioa: Ordezkapen elektroizale aromatikoa SEAr**




alkilazioa



azilazioa




- **Karbokatioien egonkortasuna eta alkilazioa**



ALTERNATIBA:

Friedel-Crafts-en azilazioa eta gero Clemmensen-en erredukzioa



ORDEZKAPEN ELEKTROIZALEA


ordezkatzailea		
elektroi-emaitzak	-NH ₂ , -NHR, -NR ₂	amino
	-OH, -OCH ₃ , -OR	hidroxi, alkoxi
	-HN-C(=O)-R	azilamino
	-CH ₃ , -CH ₂ CH ₃ , -R	alkilo
	-F, -Cl, -Br, -I	halo
elektroi-erakartzaileak		azilo, karboxi
		karboxamido, karboalkoxi
		azido sulfoniko
	-C≡N	ziano
		nitro

ORTO ETA PARA
bideratzaileak


META
bideratzaileak

Azo konposatuak


1.- Nitro taldea amino bihurtu




2.- Diazonio gatza prestatu




3.- **Azo akoplamendua:** arenodiazonio ioiak elektroizale gisara erabil daitezke oso aktibatuta dauden bentzeno eraztunekin (fenolak, anilinak eta N-alkilanilinak). Honela AZO konposatuak eratzen dira. Ordezkapena para- posizioan ematen da batik bat.



Diazonio gatzen erreakzioak




Eraztun aromatikoaren alboko katearen oxidazioa




Biodegradazioa

•Alkanoak



•Arenoak










5.GAIA: POLIMEROAK

5.1. SARRERA

Definizioa: monomero deituriko unitate txikiagoen elkarketaren bidez eratzen diren makromolekulak. Monomero guztiak berdinak izan daitezke edo ez. Polimeroak naturalak edo sintetikoak izan daitezke.

Jatorri naturaleko polimeroak antzinatik erabiltzen dira bere propietateak baliatzeko: kautxua, lihoa, kalamua, kotoia (zelulosa), zeta, artilea (proteinak)

Gaur egun era guztietako polimero sintetikoak erabiltzen ditugu, plastikoak, elastikoak, zurrnak, forma, testura eta aplikazio askotakoak.

						
PET	HDPE	PVC	LDPE	PP	PS	Beste baztuk
Polietilen tereftalato	Dentsitate altuko polietileno	Polibinil kloruro	Dentsitate baxuko polietileno	Poli-propileno	Poliestireno	Adibideak:

Substantzia bat monomero izateko funtzionalitatea $(f) \geq 2$. Funtzionalitatea \approx molekularen funtzio talde kopurua.

- Azido azetiko, $f=1$
- Etilendiamina, $f=2$
- Glizerol, $f=3$
- Olefinetan: lotura bikoitza $f=2$ kontsideratzen da.

Polimerizazio maila=polimero molekula bat eratzeko konbinatu den monomero unitate kopurua.

Polimeroaren pisu molekularra=monomeroaren PM x polimerizazio maila

5.2. POLIMERO SINTETIKOEN IZAERA ETA PROPIETATEAK

Erabiltzen diren polimero gehienak konposatu organikoak dira.

Karbono eta hidrogenoaz gain oxigenoa, nitrogenoa, sufrea edo halogenoak izan ditzakete.

Salbuespena: silikona (polisiloxanoa). Bere hezurdura txandakatzen diren oxigeno eta silizio atomoz osatua dago

Polimero baten propietate fisiko eta kimikoak (urtze-puntua, erreaktibitate kimikoa, disolbagarrien aurreko erresistentzia, malgutasuna, ...) faktore hauen menpekoak dira:

- egitura • pisu molekularra • jatorrizko monomeroa

KRISTALINITATEA

Ez dituzte beste konposatu organikoen propietate kristalinoak, baina zati kristalinoak izaten dituzte.

Kristalinitate maila (GC) polimero semikristalinoaren zati kristalinoen portzentajea da. Solidotze prozesuaren hozte-abiaduraren eta katearen konfigurazioaren menpekoa da.

Kristalinitateak polimeroaren dentsitatea, sendotasuna eta zurruntasuna handitzen ditu.

Polimero amorfoak: gardenak ; kristalinoak: opako edo zeharrargitsuak.

TRANSIZIO TERMIKOAK:

T_g: beira-trantsizio tenperatura (glass transition temperature)

- Materiala biguntzen den tenperatura, likido likatsu bilakatur.


T_m: urtze tenperatura (melting temperature)

- Polimeroak egitura kristalinoa galdu eta solidoa urtzen den tenperatura, likido likatsu bilakatur.

5.3. POLIMEREN ERAKETARAKO ERREAKZIOAK

Alkenoen adizio erreakzioak

Azido karboxiliko eta deribatuen erreakzioak



Azido karboxilikoaren deribatuen prestakuntza:


	R'-OH/H ⁺	SOCl ₂	PCl ₅

Azil haluroen eta anhidridoaren erreakzioak:

	R'-CO ₂ ⁻ Na ⁺	R'-OH	NH ₃ / R'-NH ₂	H ₂ O


Esterren eta amidaren erreakzioak:

	NH ₃ / R'-NH ₂	NaOH	H ₂ O / H ⁺



Uretanoen formakuntza erreakzioak:

Betegarri gisa erabiltzen diren aparrak dira (eraikinen isolamenduan) eta zuntz eta material elastikoak egiteko (lycra)




5.4. SAILKAPENAK, EZAUGARRIAK, SINTEZIAK...


5.4.1. Jatorriaren arabera

Naturalak-Semisintetikoak-Sintetikoak


5.4.1.1. Polisakaridoak: karbohidratoak polihidroxialdehidoak edo polihidroxizetonak dira.



5.4.1.2. Peptido eta proteinak



5.4.1.3. Kautxua



5.4.1.4. DNA eta RNA

5.4.2. Iturriaren jatorriaren arabera

Bio-based (iturri berriztagarriak)- Oil-based (iturri fosilak)

5.4.3. Biodegradarritasunaren arabera

Bideogardarriak

-Baldintza aerobikoak: CO₂ eta H₂O


-Baldintza anaerobioak: CO₂, H₂O, H₂, SH₂, CH₄ y NH₃

-Entzimak ekoizten dituzten mikroorganismoak: bakterioak, onddoak, legamiak, algak

EZ biodegradagarriak


5.4.4. Egituraren arabera

Linealak-Adarkatuak-Gurutzatuak




5.4.5. Konposizioaren arabera

Homopolimeroak: monomero guztiak berdinak dira



Kopolimeroak : bi monomero mota edo gehiagoz osatuak



5.4.6. Propietate fisikokimiko/erabileraren arabera

5.4.6.1. Zuntzak: Polimero linealak dira.

5.4.6.2. Plastikoak: Temperatura eta presio egokiarekin moldagarriak diren polimeroak dira. Horri esker era askotako formak eman dakizkieke


5.4.6.3. Elastomeroak : elastikotasun handiko polimeroak dira. Horri esker deformazio indar bat ezarri ondoren indar hori desagertzean hasierako forma erraz berreskuratzen dute (kautxua, neoprenoa).

5.4.6.4. Estaldurak: Normalean sustantzia likidoak izaten dira. Beste material batzuen gainazalean itsasten dira, honela propietate interesgarriak emanez, adibidez urratzearekiko erresistentzia.


5.4.6.5. Itsasgarriak : Sustantzia hauek adhesio eta kohesio altua konbintzen dituzte, honela kontaktu superfizialaren bidez, bi gorputz edo gehiago itsasten dira.

5.4.7. Polimerizazio-erreakzioaren arabera

5.4.7.1. Kondentsazio polimerizaziokoak: monomeroaren zati bat galdu egiten da polimeroaren parte egiten denean. Erreakzioaren azpi-produktu dira ura, HCl eta horrelako molekula txikiak



5.4.7.2. Adizio polimerizaziokoak: monomero osoa polimeroaren parte da eta ez da azpi produkturik eratzten



5.4.8. Katearen hazkuntzaren arabera

5.4.8.1 Etapa-polimerizaziokoak

5.4.8.2 Kate-polimerizaziokoak

5.5. SUNTSIPENA

5.5.1 Ingurumen-degradazio prozesuak

Autooxidazioa:








Foto-degradazioa:




5.5.2 Konbustioa-errausketa

Gas toxikoak eraten dira: HCl, HCN, CO, HNO₃. Produktu toxikoak ere bai: PHA, dioxinak, dibenzofuranoak. Sugarraren sorrera atzeratzen duten aditiboak:



Konbustioa

- eliminazio erreakzioa: PVCaren deskonposizio termikoa



5.5.3 Birtziklatzea

6.GAIA: KONPOSATU AROMATIKOAK: PAHak, PCBak, dioxinak eta dibenzofuranoak, PDBEak

6.1. SARRERA

Konposatu aromatikoa: bere erreaktibitatea bentzenoarenarekin parekoa duen konposatua. Konposatu baten π elektroiak eraztun guztian zehar deslokalizatuta daudenean eta deslokalizazio honek konposatua egonkortzen duenean konposatu aromatikoa da.


Hückelen erregela: eraztun konjugatu monozikliko lauak aromatikoa dira $(4n+2)$ ($n=0, 1, 2, \dots$) π elektroi dituztenean.

Konposatu aromatikoa karbomonoziklikoa izan daitezke (bentzeno deribatuak: tolueno, klorobentzeno, ...), fusioatuta egon daitezke (naftaleno, antrazeno, ...) bere zikloan heteroatomoak eduki ditzakete (monoheteroziklo aromatikoa: piridina, pirrol, furano, ...), beste ziklo batzuekin fusioatuta egon daitezke (DNA eta RNAREN base nitrogenatuak, dioxina eta dibenzofuranoak, ...), ...


Eterren propietateak:

- Konposatu koloreak.
- Irakite puntua alkoholena baino baxuagoa (H-zubirik ez)
- Uretan disolbagarritasun eskasa.
- Inerteak: ez dute erreakzionatzen azido edo base diluituekin, ez oxidatzaile ez erreduktore arruntekin.
- Ez dute Narekin erreakzionatzen (alkoholek bezala)
- Disolbatzaile egokiak erreakzio organikoak egiteko

Prestakuntza: Williamsonen sintesia




Beste metodo batzuk:




Eter ziklikoak


- Epoxidoak edo oxiranoak



- Alkenoak perazidoekin (mCPBAekin) oxidatuz prestatzen dira gehienak



- Ziklo hori oso erreakzionakorra da



6.2. KARBOZIKLO AROMATIKOAK

Grafenoa karbonoaren forma alotropiko bat da, karbonoek sp² hibridazioa dute eta elkarri lotuta daude lotura kobalenteen bidez. Egitura hexagonalak eratzen dituzte planoetan.

Grafenoa espazioaren bi dimentsiotan hedatzen den molekula aromatikoa erraldoia da.

Grafitoaren, karbonozko nanohodien eta fulerenoaren egiturazko osagai oinarritzakoa da.

- **Grafitoa** Van der Waals indarren bidez lotutako grafeno geruzaz osatua dagoela esan daiteke.
- **Nanohodi** bat hodi forman bilduta dagoen grafeno orri bat bezalakoa da.
- **Fulerenoak** esfera bat osatzeko itxi diren grafenoak dira.


6.2.1. HIDROKARBURO AROMATIKO POLIZIKLIKOAK (PAH)

Bentzeno eraztun fusionatuak dituzte.

Petroliotik eratorriak. Iturri antropogenikoak. Izarren arteko espazioan ere aurkitu dira. Ingurumenean era askotako lekuetan aurkitu dira.


Propietateak:

Konposatu solidoak, hegazkortasun txikikoak, uretan disolbagarritasun eskasa, oso iraunkorrak, ingurumenarekiko eragina: minbizia eragiteko gaitasun izan dezakete. Toxikoenetakoa, bentzo[a]pireno:




HAP iturriak: Bentzo[a]pirenoa ekoizten duten prozesuak

Konbustio partziala. Erradikalen eraketa



Metabolismoak eragindako toxizitatea: birrantomaketa azkarra, toxizitate txikia



Metabolismoak eragindako toxizitatea






Foto-degradazioa: konposatu hauek konjugazio handikoak direla eta argi UVa ederki xurgatzen dute, beraz, foto-degradazioa da deskonposaketarako biderik eraginkorrena.



Bio-degradazioa




6.2.2. BIFENILO POLIKLORATUAK (PCB)

1985etik erabiltzea eta komertzializatzea debeketuta dago: erreprodukzioarekiko toxikoak eta bio-metakorrak.

Biotaren gantzean metatuta gehienbat, zoru, jalkin eta ur inguruetan (kutsadura historikoa). Bi erabilpen nagusi:

- Itxian: ekipamendu elektrikoaren isurgai dielektrikoak. Isurketak: ihesak, suteak, isurketa ilegalak, eliminazio desegokia.

-Irekian: plagizidak, material ignifugoak, zigilatze gaiak, margoak, ... Isurketak: zabortegiak, lurrunketaren ondorio den migrazioa. Neurri txikiagoan: hondakinen errausketa, lurretan araztegiatiko lohiak zabaltzea, olioaren hondakinen errausketa. Baita ere PCBen biltegiak, itsasoetako eta ibaietako jalkinak eta portuetako lohiak.



Propietateak:


Egonkortasun termiko handia, kimikoki geldoak, ez sukoiak, konstante dielektriko handia, lipofiloak: uretan disolbagarritasun eskasa, 70eko hamarkadan erabilpen handia: transformagailuen olioetan, osagai dielektrikoetan, fluido hidraulikoetan, berotututzaileetan, lubrifikatzailerak, plastifikatzaileak, itsasgarriak, pestizidak, tinduak eta argizariak.

Toxikotasuna: KOI


Klorazio maila (zuzenki proportzionala)

kloratutako posizioak (orto-, meta-, para-): planokideak toxikoagoak (dioxinen tankerakoak)

Bifeniloaren sintesia




PCBen sintesia: bifeniloaren klorazio katalitiko



Konbustioan sortzen diren produktu desira-gaitzak



PCBen degradazioa:




6.2.3. SUGARRAREN SORRERA ATZERATZEN DUTEN ADITIBOAK

plastikoak, poliuretano aparrak, material elektrikoa, TV aparatuak, ordenagailuak, eraikuntzako materialak eta ohialak.


Propietateak:

uretan disolbagarritasun eskasa, lurrun presio txikia, kimikoki egonkorak, iraunkorak, bio-metakorak.

Bifenifo polibromatuak:



Difenileter polibromatuak:



6.2.4. BESTE KONPOSATU BATZUK

Aditibo askok eraztun aromatikoak dituzte bere egituretan. Erabilpen ugari dituzte: intsektizidak, kontserbagarriak, antioxidanteak, plastifikanteak, aromak, farmakoak, desinfektagarriak, koloragarriak...


6.3. HETEROZIKLO AROMATIKOAK

Bere egitura karbonoa ez den beste atomo bat duten molekula ziklikoak heterozikloak dira. Eta gainera, Huckelen erregela betetzen badute, orduan aromatikoak dira.


6.3.1. DIOXINA ETA DIBENTZOFURANOAK

Egitura kimikoa eta propietateak:


Konposatu solidoak, hidrolisiarekiko erresistenteak, hegazkortasun txikia, lipofiloak: uretan disolbagarritasun txikia...



Kutsadura-iturriak:



Degradazioa:



Toxikotasuna: Toxikotasun baliokidearen faktorea TEF, konpsatu bakoitzari ematen zaio dioxina toxikoenarekin konparatuz (bere balioa =1). TEF balioa kogenerearen kontzentrazioarekin biderkatuz nahastearen toxizitate baliokidea lortzen da (TEQ)

7.GAIA: PRODUKTU AGROKIMIKOAK: ezaugarriak eta bilakaera ingurumenean

7.1. SARRERA

Pestizidak hainbat ekintzatakoak eta talde kimikotakoak izan daitezke:

Ekintza	talde kimikoa
Intsektizidak	Organofosfatoak, karbamatoak, konp. organokloratuak, piretrinak eta piretroideak
Herbizidak	Karbamatoak, azido fenoxiazetikoak, triazinak, fenilureak
Fungizidak	Ditiokarbamatoak, konp. organokuprikoak eta organomerkurikoak
Semiokimikoak	Feromonak (esterrak) eta Alelokimikoak





7.2. INTSEKTIZIDAK

Definizioa: Substantzia batek ekintza intsektizida du gizakiarentzat eta beste animalientzat hilgarriak ez diren kontzentrazioetan intsektuak era selektiboan hiltzen dituenean.


7.2.1. ORGANOKLORATUAK

7.2.1.1. Aromatikoak (DDT eta antzekoak)


Prototipoa, DDT: 1,1'-bis(p-klorofenil)-2,2,2-trikloroetanoa □ Bere sintesian posizioko beste isomero batzuk ere eratzen dira.



Ingurumenean degradatzeko mekanismoak:




Eliminazioa: (deshidroklorazioa) pH=4-8



Erredukzioa: deshalogenazio erreduktorea




Metoxikloroaren hidrolisia (pH=4-8)



7.2.1.2. Ez aromatikoak


Konposatu kloratu mono- eta biziklikoak




Ekintza-bidea: GABAren hartzailearen inhibizioa: konbulsioak




Sintesia:




Ingurumeneko degradazio-bideak: albo-deshalogenazioa




Hexakloroziklopentadienoaren deribatuak. Biziklo polikloratuen Sintesia: Diels-Alder erreakzioa



Ingurumeneko degradazio-bideak: ur ingurunetan iraunkorrak




Epoxidoaren hidrolisia



Deribatu terpeniko polikloratuak: hainbat isomeroren nahaste gisa komertzializatzen ziren.


KOP: urtetan irauten dute

7.2.2. ORGANOFOSFORATUAK



Ekintza-mekanismoa: azetilkolina neurotransmisorea degradatzen duen entzima inhibitzen dute. Azetilkolina beharrezkoa da nerbio bulkada neurona batetik bestera transmititzeko.


Adibide batzuk:




Ingurumeneko degradazio bideak:

Temperaturarekiko sentikorra. Metilparationen erdibizitza 8 egun udan eta 38 neguan

•Hidrolisia




•Desulfurazioa



Cu²⁺ arekin katalizatutako hidrolisia


Metalekin konplexuak sor ditzaketen atomoak: zoruko metalekin kelatoak sortzen dituzte. Honek hidrolisia azkartzen du eta erdibizitza laburtzen.



7.2.3. KARBAMATOAK


Organokloratu eta organofosforatuen ordezkak, garestiagoak. Intsektuak organofosforatuekin hiltzen ez direnean erabiltzen dira.

Ekintza-bidea: azetilkolinesterasaren inhibizio itzulkorra.




Ingurumeneko degradazio-mekanismoak

Hidrolisia ingurune basikoan:




Fotodegradazioa:




7.2.4. PIRETRINAK ETA PIRETROIDEAK

Piretrinak:



Piretroideak:



Piperonilo butoxidoarekin pestizida sinergikoa: zitokromo P450 inhibitzen du, pestizia asko desaktibatzen duen entzima-familia. Modu horretan intsektizidaren iraupena luzatzen du.

Ingurumeneko degradazio-bideak:

Hidrolisia






Foto-degradazioa:



Degradazio oxidatiboa: intsektu eta arratoietan




7.3. HERBIZIDAK

Definizioa: nahi ez diren landare edo belarrak ez ateratzeko erabiltzen den pestizida


Sailkapena: sailkatzeko modu asko daude:

- Erabiltzeko modua (ukipena edo sistemikoa)
- Ekintza mekanismoa (zein entzima, proteina edo prozesu biokimikoren gain eragiten duen)
- Egitura kimikoa. Horren arabera mota hauek, adibidez:

7.3.1 AZIDO FENOXIAZTIKOAREN DERIBATUAK




Sintesia:



Ingurumenean degradatzeko bideak:

Biotikoa edo foto-degradazioa




7.3.2 TRIAZINAK

Degradazioa


Foto-degradazioa

Hidrolisia:



7.3.4 GLIFOSATO

Europako Batzordeak 2022. urtean bere erabilera debekatu zuen, kantzerigenoa dela uste delako.



7.4. BIOPESTIZIDAK

Biopestizidak izurriteak tratatzeko produktuak dira, jatorria mikroorganismoetan edo produktu naturaletan dutenak. Oso eraginkorrak dira, ito espezifikoetara bideratuak eta ingurumenarekiko arrisku txikiagokoak.

7.4.1. MIKROORGANISMOAK: Onddo, bakterio alga birus eta protozoak edo euren sortutako konposatuak dira.

7.4.2. LANDAREETATIK ERATORRITAKO PRODUKTU NATURALAK: Limoneno, linalool, rotenona, beratridina, etabar luze bat.

7.4.3. SEMIOKIMIKOAK: Izaki bizidunen komunikazioarekin zerikusia duten substantziak, oso selektiboak eta eraginkorrak oso dosi txikietan

ALDEHIDO ETA ZETONAK

PROPIETATE FISIKOAK


Karbonilo taldeak momentu dipolar konstantea du. C atomo gutxikoak uretan disolbagarriak dira. 6 C atomotik gora, ez dira batere disolbatzen uretan.

Hidrokarburuek baino irakite puntu altuagoak (dipolo-dipolo elkarrekintzak)

Alkoholek baino irakite puntu baxuagoak (H-zubirik ez)

PROPIETATE KIMIKOAK

Karbono karbonilikoa elektroizalea da, eta alboko karbonoaren H-a, azidoa.



7.5. ONGARRIAK

Definizioa: lurra emankorragoa bihurtzeko erabiltzen den substantzia organiko zein minerala da.

-organikoak: animal- giza- landare- edo jaki- hondakinetatik edo antzeko beste iturri organikoetatik datorren ongarria.


-mineralak: materia organikorik ez duen eta landareentzat erabilgarria den forma batean landareen hazkuntza eta garapenerako oinarritzkoa den elementu nutritibo bat (N, K, P) edo gehiago duen produktua.

Sustraiak: H₂O, O₂, substantzia mineral eta organikoak


Hostoak: CO₂, O₂, H₂O eta solutuak.

N,P eta K duen ongarri baten konposizioa 3 zenbakiren bidez adierazi ohi da. Zenbaki horiek pisu-portzentajea adierazten dute, N kantitatea, P-rena P₂O₅ forman eta K-rena K₂O. Forman


Ongarri gehienak ezorganikoak diren arren, badira hainbat ongarri organiko: konposta, simaurra, guanoa, turba, humusa, algak, urea edo Fe, Zn edo Mn bezalakoak emateko kelatoak egin ditzaketen substantziak




azido etilendiamino tetraazetikoa
EDTA




azido etilendiamino di(o-hidroxifenilazetiko)
EDDHA



EDTA kelatoa Fe³⁺-rekin



azido hidroxieti-etilendiaminotriazetikoa
HEDTA



azido dietilentriamino pentaazetikoa
DTPA

8.GAIA: XABOIAK

8.1. SARRERA


Tentsioaktiboak interfase (aire-ur, olio-ur) batean kokatzeko gaitasuna duten molekulak dira, eta bertako gainazal-tentsioa murrizten eta bi faseen propietateak aldatzen dituzte. Zati hidrofilo bat eta zati apolar hidrofobo bat dute. Surfaktante izena ere ematen zaie.



Tentsioaktiboek detergente moduan jokatzen dute: gantz-ur inguruneetan zikinkeria dispersatzeko gaitasuna eta horrexegatik izaten dira garbitzaile gehienen osagai. Beste erabilpen batzuk ere badituzte: emultsiogile, dispersiogile, hezegarri eta apar eragile.

Tentsioaktiboek edo surfaktanteek iturri fosiletan edo iturri berdeetan “surfaktante berdeak” izan dezakete jatorria.


Zelulen mintzek tentsioaktibo egitura duten molekulak dituzte, fosfolipidoak. Horietako batzuk, lezitinak kasu, elikagaien industrian emultsiogile moduan erabiltzen dira.



Garbiketean detergenteak erabili aurretik xaboiak erabiltzen zen. Xaboiak gantz azidoen gatzak dira eta saponifikazio bidez lortzen dira.

•**Saponifikazioa:** esterraren hidrolisi basikoa. Disoluzio alkalinoak gantza bere osagaietan deskonposatzen du: alkohol bat (glizerola) eta kate luzeko gantz-azido baten gatz bat (xaboi bat)


•**Transesterifikazio** bidez biodiesela lortzen da: esterraren erreakzioa metanol edo etanolarekin, inguru basiko edo azidoan



Gantzak solidoak dira giro tenperaturan; olioak, aldiz, likidoak dira, C=C lotura gehiago dituztelako. Lotura bikoitzak hidrogenazio katalitiko bidez erreduzitzen direnean olio likidoak gantz solido bihurtzen dira.

Gantz eta olio naturalen lotura bikoitzen konfigurazioa beti cis da. Olio begetalen hidrogenazio partziala burutzen denean cis loturak trans bihurtu daitezke. Honela sortzen dira trans gantzak, bihotzeko gaixotasunekin erlazionatuta daudenak.

Omega gantz azidoak: omega lotura bikoitzaren posizioa adierazteko erabiltzen den termino bat da.



8.2. TENTSIOAKTIBOAK

- Tentsioaktiboak bere **egituraren arabera** honela sailkatzen dira:

IONIKOAK

- Anionikoak: buru polar anionikoa dutenak: CO₂⁻, SO₃⁻, SO₄⁻
- Kationikoak: buru polar kationikoa dutenak
- Anfoteroak: bere egituran karga positiboa eta negatiboa dituztenak

EZ-IONIKOAK

Buru polarra karga gabekoa dutenak. Hidroxilo taldeak izan ohi dituzte

- **Disolbagarritasunaren arabera** honela sailkatzen dira:

HIDROFILOAK (orokorrean ionikoak) eta HIDROFOBOAK

- Beraien propietateak **4 parametro garrantzitsuren arabera** dira:

Kontzentrazio mizelar kritikoa (CMC)

Kontzentrazio minimoa espontaneoki mizelak sortzeko

Agregazio zenbakia (na)

Batazbestea zenbat molekula dauden mizelak sortzen

Hidrofilo-lipofilo balantzea (HLB)

Tentsioaktiboaren gaitasuna emultsio egonkorak sortzeko

Laino puntua(CP, cloud point)

Temperatura honetatik behera ez da disolbagarria uretan uherra

8.2.1 IONIKOAK

Tentsioaktibo anionikoak

- Perfluoratuak:


Tentsioaktiboaren karbono-katean fluor atomoak sartzean lortzen diren produktuak orbanen aldarazle moduan erabil daitezke margo eta bernizetan, labainketa hobetzen baitute. Sua itzaltzeko aparretan ere erabil daitezke.

Erabilienez 8 C-tako katea dute, eta surfaktante ionikoak dira. Bio-metakorrak dira, eta C-F loturaren indarra dela eta ez dira bio-degradagarriak, oso iraunkorrak baizik.




azido perfluorooktanoiko (PFOA) azido perfluorooktanosulfoniko (PFOS)

Konposatu hauetako gehienak debekatu egin dira. Azken urteotan ordezeko konposatuak diseinatu dira; batzuek C atomo fluorodun gutxiago dituzte, eta gaur dakigunaren arabera, ez lirateko metatuko, uretan oso disolbagarriak dira eta toxikotasun txikiagoa dute. Batzuk ionikoak dira:



azido 10-(trifluorometoxi)dekano-1-sulfoniko azido perfluorobutanosulfoniko (PFBS)


Konposatu perfluoratuaren biodegradazioa:



- **Fluorrik gabeko surfaktanteak:**




Fluorrik gabeko surfaktanteen sintesia:




Fluorrik gabeko surfaktanteen biodegradazioa:

Kate linealeko tentsioaktibo anionikoak bio-degradagarriak dira eta oso toxikotasun txikikoak.




Albo-kateko adarkadurek degradazioa moteltzen dute. Hori dela eta, honelako alkilbentzenosulfonatoak tentsioaktibo iraunkorren taldean sailkatzen dira. Gaur egun ez dira erabiltzen baina pasa den mendeko erdi-aldera ibaietan ikusten ziren aparren erantzule ziren.



Fluorrik gabeko surfaktanteen degradazioa:


Tentsioaktibo polietoxilatuen taldeko erabilienak nonilfenolaren deribatuak dira.

Bio-degradazioak nonilfenola eta degradazio partzialeko hainbat produktu ematen du. Oso konposatu iraunkorrak dira, eta itsasoetako bizitzarentzat kaltegarriak.




Tentsioaktibo kationikoak

Erabilpen nagusiak: leungarriak eta metalen korrosioaren inhibitzaileak.



Tentsioaktibo antoferoak

Xanpu leunetan erabiltzen dira (pH neutroa ile eta azalarekiko)




8.2.2 EZ-IONIKOAK

Parametro garrantzitsu bat **Hidrofilo/Lipofilo Balantzea (HLB)** eta parametro horren balorearen arabera erabilera ezberdinak daude. Balore horrek tentsioaktiboak emulsio egonkorrek sortzeko duen kapazitatea adierazten du, ur-olio sistematan edo olio ur sistematan.

Beste parametro garrantzitsu bat **laino puntua** da, temperatura horretan tentsioaktiboa ez da disolbagarria disoluzio urtsu batean eta horregatik makroskopikoki itxura uherra hartzen du.


- **Fluoratuak**

eter, hidroxi edo zeto-funtzioak dituzte.




- Fluorrik gabekoak

Gehien erabiltzen direnak alkohol eta fenol polietoxilatuak dira, anionikoekin batera hauts erako garbigarrietan eta garbigarri likidoetan osagai nagusi gisa.



Orokorrean kate luzeko alkoholak, alkohol oleikoa, (Z)-oktadek-9-en-1-ola




8.3. DETERGENTEAK

Detergente sintetikoak sortu ziren xaboiak ur gogorretan erabiltzen zirenean gertatzen ziren hauspeatze arazoak konpontzeko.

Detergenteek tentsioaktiboetaz gain beste hainbat gehigarri dute: zuritzaile optikoak, xaboa, entzimak, fosfonatoak, usaingozagarriak, etab.


Laguntzailekideak. Katioiak kelatatzen dituzten agenteak dira, EDTA bezalakoak (7. gailan ikusia), edo NTA edo Na₅P₃O₁₀. Fosforo deribatu honek ur-ekosistemetara heltzen denean eutrofizazioa eragiten du.




Entzimak. Hidrolisia eragiten duten entzimak gehitzen dira proteinak ezabatzeko: arraultz edo odol orbanak, adibidez.

Apar egonkortzaileak. Gehiegizko apar eraketa kontrolatzen dute.

Zuritzaileak. Arruntena sodio perboratoa da (NaBO₃·4H₂O). Honek H₂O₂ askatzen du uretan disolbatzean. Tenperatura baxuetan azido p-hidroxibentzenosulfonikoaren esterrekin batera erabiltzen da, disoluzioan perazido zuritzaileak eratuz.



Zurizaile optikoak. Argia absorbatzen dute 330-380 nm (UV) tartean eta ondoren igorri egiten dute 430-490 nm tartean, espektroaren zati urdinean. Honela zuntzek hartzen duten kolore horixkari aurre egiten diote.



4,4'-bis(4-anilino-6-morpholino-1,3,5-triazin-2-ylamino)-2,2'-stilbene disulfonate